



Badator Bertso Eguna 2013

"Soka etetera doa, honezkero eten ez bada. Hari bakarrean izanik bi aukera ditugu: soka tenkatu edo korapilo berriak asmatu. Dena zitzuan aldatzen da eta pentsatu gabe erabakitzen dugu. Estuasuna ez da sormenaren akuilurik txarrena, ordea."

Bertsozale Elkartearen ari gara edizio berria prestatzen. Azken urteetako gizarte bilakaera izango du gaitzat Kurasaaleko ekitaldi nagusiak. Egoeraren noraezean gizakiak egindako hautuak izango ditu aztergai. Dozena bat bertsolari izango dira kantuan eskenatoki gainean, eta artista gonbidatuak lagun izango dituzte. Bi ordu inguru iraungo du emanaldiak.

Egun osoko plana

Urtarrilaren 26an izango da, azken urtetan bezala, urtarrilaren azken larunbatean. Egun osoko jaia izango da bertsozaleona. Goizetik Alde Zaharreko kaleetan arituko dira bertsolariak, geldialdiak egingo

dituzte Bulebarrean, Bretxako merkaturan eta Konstituzio plazan.

Arratsaldeko seietan izango da ekitaldi nagusia. Eta gauean bertsozaleon festa, kubo azpian eta kupel artean. Kurasaaleko NiNeu jatetxeak prestatu du menua. Afalosteko giroan ere sorpresak izango dira, okasiorako prestatutako saioak eta bat-batekoak tartekatuko dira. Gaueko ekitaldian 600 bertsozalerentzat dago lekua.

Bazkideok lehentasuna

Urtero jende mordoxka gelditzen da lekurik gabe eta joatekotan bazabiltza

txartela garaiz hartzeko gomendatzen dizugu. Sarrerak eskuratzeko aukera duzu www.bertsosarrerak.eu helbidean urtarrilaren 7tik 25era.

Ohi bezala, bazkideok afarirako sarrerak eskuratzeko lehentasuna izango duzue lehen astean, urtarrilaren 7tik 15era. Epe horretan, bazkide bakoitzak bereaz gain, bazkide ez den batentzat sarrera eta 16 urte artekoentzat beste bat hartu ahal izango duzue gehienez.



ARKAITZ ESTIBALLES
Bizkaiko txapelduna
2012-XII-16, Bilbo

Txapeldunaren agurra

Prestatu gabe neukan agurra rimatu beharko dut hari.
Lelengo ta behin bihotz-bihotzez
Karmelo ikastolari
eta nola ahaztu bertan
ikasten dauden Euri eta Maindi;
Anizetori, Kepa Lopari
ta baita Jon Enbeitari;
ta Santutxuko bertso-eskolari;
gaurko zortzikoteari
ta bereziki Etxahun Lekuerei
ta baita Fredi Paiari;
eta nola ez zuri entzule ta
Euskal Herri osoari
gure ondoan dagoenari ta
laister egongo denari.

Bertso-eskolen gaineko informazioa, www.bertso-eskolak.com webgunean

Bertsoak egiten laguntzeko *Arbel Digitala* ere aurkitu daiteke bertan

Bertso-eskolak.com webgunea jarri du martxan Bertsozale Elkarteak. Webgune horren helburu nagusia bertsolaritza sustatzen ari diren bertso-eskolei eta herrietako eragileei tresnak ematea da, euren herriko edo bailarako egoeraren irakurketa egin ahal izateko eta non eragin jakiteko.

Tresna berri horrekin Euskal Herriko bertso eskolen mapa edonoz kontsulta daiteke, eta modu erraz batez ezagutu daitezke zein herritan dagoen bertso eskola eta horiek dituen ezaugarriak: zenbat talde eta partaide dituen, nortzuk diren bertso-eskolako irakasle edo arduradunak, eta bertso-eskola horrekin harremanetan jartzeko modua. Horrez gain, azken urteotan bertso-eskolek izan duten bilakaera aztertzeko datuak ere kontsulta daitezke.

Baina bertso-eskolak.com webgunea ez da herriz herri dauden bertso-eskolen berri ematera mugatzen. Horrez gain, herri edo inguru bakoitzean bertsolaritzaren egoera zein den aztertzeko bertsolaritzaren mapa ere eskaintzen du. Horretan, leku bakoitzean bertsolaritza zein esparrutan zabaldua dagoen ikusteko aukera dago: ikastetxeetan lantzen den, bertso-eskolarik baden, urtean zehar herrian antolatzen diren saioei buruzko informazioa, herri horretako eragileak nortzuk diren, eta beste hainbat informazio.

Webgunean agertzen diren datuak osatzeko edo zuzentzeko aukera bada, baita datu zehatzagoak behar dituen eragileek informazioa eskatzeko ere, transmisioa@bertsozale helbide elektronikoaren bitartez.

Bertsoak egiteko hainbat baliabide eskaintzen ditu *Arbel Digitalak*

Webguneak duen beste atal nagusia Bertsoarako *Arbel Digitala* da, Euskal Herriko Unibertsitateko IXA ikerkuntza taldearen eta Bertsozale Elkartearen arteko elkarlanaren harira Manex Agirrezabal bertsozale eta informatikariak garatutako proiektua.

Arbel digitalaren bitartez bertsotan ikasten ari direnei edo bertsoak osatzeko arazoak dituztenei laguntza eskaini nahi zaie.

Horretarako tresna honek hainbat baliabide eskaintzen ditu:

- Errima-bilatazailea: hitz bat edo hitz-bukaera bat emanda hitz edo hitz-bukaera horrekin errima egiten duten hitzak itzultzen ditu. Silaba kopurua finkatzeko aukera dauka.
- Neurri-markatzailea: neurri bat aukeratuta, bertsoa neurri horretan idazteko bete beharreko murriztapenak erakusten ditu: lerro bakoitzak izan beharreko silaba kopurua, eta zein lerrok errimatu behar duten.

- Neurri-egiaztatzailea: neurri bat aukeratu ondoren, eta betiere bertsoa idatzitakoan, neurriari dagozkion murriztapenak betetzen diren ala ez egiaztatuko du; alegia, lerro bakoitzeko silaba-kopurua neurriari dagokionarekin bat ote datorren, eta errimatu beharreko lerroek ea errimatzen duten.
- Sinonimo-bilatazailea: hitz bat emanda, emandako hitzaren sinonimoak itzultzen ditu.

Bertso-eskolen mapa

Mapa Satelitea

Izena

Lekua

Bilatu

Herrialdeka

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa
- Lapurdi
- Nafarroa
- Nafarroa Beherea
- Zuberoa
- Guztikiak

Kredituak: Maparen mugak CodeSyntax eta Ahotsak.com - Puntu geografikoak GeoNames
Kokapen geografiko desegokiren bat eman badizugu, oharra bidali mesedez

Jon Artano. Hitzetik Hortzerako zuzendaria

“Bertsolari eta bertsozaleei esker ateratzen da astero Hitzetik Hortzera”

Hainbat nobedadez ekin dio denboraldi berriari Hitzetik Hortzera telebista saioak. Ohi bezala, Euskal Telebistaren lehen katean emititzen dute Hitzetik Hortzera, eta horrez gain Nahieran plataforman noiznahi ikus daiteke.

Jon Artano zuzendari eta aurkezleak hasi berria den denboraldiaren inguruan xehetasunak eman dizkigu.

Hitzetik Hortzerak denboraldi berriari ekin zion azaroan, nola joan dira orain arteko programak?

Juxtu-juxtu joan dira, egia esaten hasita. Asteak pasa ahala lasaiago ari gara, eta gauzak, ustez, txukunago egiten. Aldaketa batzuk egin ditugu eta horrek lan molde berriari neurria hartzeko maniobratu beharra ekarri digu. Eta horrek gerriko griki-grakak... Ondo pentsatuz gero, ordea, den-dena hasieratik tatxarik gabe egiten hasiko bagina ez genuke hobetzeko tarterik... kar, kar, kar.

Plato “ibiltaria” da denboraldi berriko nobedaderik nagusietakoa. Zer ekarri dizue estudiotik plazetara pasatzeak?

Gauza mordoia ekarri dizkigu, leku askotara eraman gaituelako: Atarrabiako gaztetxera, Oskar Estangaren bertso-batukada fusioa ezagutzera; Ormaetxe

baserriko sukaldera, Onintza Enbeitak egindako kafea dastatzera; Imanol Lazkanoren konpainian, Azpeitiko plazara santomas egunez...

Itxuraz, nahiko ordutegi onak ditu aurten programak. Gainera programa osorik Nahieran plataforman ikusteko dago, edozein ordutegian...

Hala da, bai. Nahiago genuke denboraldi amaierara arte eutsiko bagenien orain ditugun paseei. Ostiral iluntzean, 21:00etan, ematen dute aurrenekoz eta gazte-jendearentzat ordutegi aldrebes-xamarra da. Dena dela, igande bazkalostean eta gauzez ere ematen dute. Eta audientzia datuak ere politak izan ditu orain artean.

Sorpresa edo nobedaderik izango al dugu hurrengo hilabeteotako saioetan?

Sorpresak? Atzeraka erortzeko modukoak! Baina ez lirateke sorpresak hemen kontatuz gero...

Nola hartu ohi zaituztete bertsozaleek eta bertsolariek grabatzera joaten zaretenean?

Pozez txoratzen! Kar, kar, kar... Ez, guk badakigu bero pixka bat ematen diegula bertsolariei. Eta badakigu bertsozale

batzuk lasaiago leudekeela, bertso-otorduetan batik bat, gu azalduko ez bagina... Baina jeneralean oso gozo hartu ohi gaituzte bai batzuk eta bai besteek; eta beraiei eskerrak ateratzen da astero Hitzetik Hortzera.

Zein izaten da lan-asteko momenturi onena, eta zein txarra?

Onena ostirala izan ohi da pare bat arrazoiengatik: inportanteena, gehienetan jai izaten dugula, asteburutan grabazioak egiten ditugulako. Eta gero, gainera, ostiralerako asteko programa bukatuta izaten dugulako, emisiorako prest. Dena dela, ederki pasatzen dugu bai grabazioetan, bai muntatze lanetan... Momentu txar-txarrak ez da izaten, izatekotan urduritasun une batzuk iritsiko ote garen edo ez zalantza sartzen zaigunean edo grabazioan ari garela bat-bateko arazoren bat sortu eta momentuan asmatu behar dugunean soluzioa.

Joxe Agirrerri buruzko saio berezia ere egin du lan-taldeak...

Albistea jakin eta bat pentsatu genuen zerbait egin beharra geneukala. Nahi baino denbora gutxiago eskaini ahal izan genion ale berezi horri, erlojuaren kontra aritu ginelako. Baina hori eta gehiago merezi du Joxe Agirrek.



Hitzetik Hortzerako lan-taldea:
Haritz Arrizabalaga (kamera eta errealizatzailea),
Jon Artano (zuzendaria),
Eneritz Urkola (erredaktorea),
Felix Irazustabarrena (erredaktorea)
eta Luix Gurrutxaga (kamera)
// Hitzetik Hortzera



Puntu jarrita

AITOR SERVIERT

MUGETAN

Galdera zaila egin didazuna, Maddi! Zer eskaini diozue Iparraldeari Xilaban parte hartu duzuenok? Lehenik, nire ustez, norbanakoek ekarpena garrantzitsua izan da, bertsozale «ezohikoek» xapelketa aberastu dute, aspaldi dabiltzan batzuen aintzinamenduak nabariak izan dira, bertsolari oso gazteak heldutasunez jantzita agertu dira, hasiberrien freskura ere tartean. Bigarrenik, bertsolari taldetik hasiz, Xilabak osotasun bezala Iparraldeari egin dion ekarpenaz hausnarketa xume pare bat.

Garaziko saioan, Odei Barrosok horrela eginen zutela ziurtatu zigun: «Gure buruen aurka borrokan / bertsolariaren alde.»

Ildo beretik, xapelketak akuilaturik borroka eder honek beste oihartzun bat duela erranen nuke. Bertsolariak, euskalgintzaren eta herrigintzaren mugetan dabilela uste baitut. Xilabaren gurpilean, aintzina doaz bi arlo horiek.

Jendea bertsozaleak, jendeak euskarekin duen harremana erabat aldatzea baita; hizkuntza bizi, jostari eta egunerokoan baliagarria darabilterako bertsolariak.

Baina Ametsi erreferentzia eginez, hitzak ez du jostatzeko bakarrik balio, hizkuntzari lotuak baitira aldarrikapenak, hizkuntza bera gai dutenak edo bestelakoak.

Saiorik saio, Iparraldeak hainbat ahots ezberdin dituela ikusi da eta Xumai Muruak aintzineko Xilaban aholkatu zigun gisan «zeresanez jantzita» gaudela. Errateko ainitz dugu eta beste behin ere, haien nortasuna bertsozaleen islatzeko gaitasuna dutenek, une ahanztezinak biziarazi dizkigute.

Ahal den heinean, Maddik Xilabari buruz egin didan galderari erantzuten saiatu naiz. Hala ere, helduen txapelketak utzi eta eskolartekoari buruzko hausnarketara bideratu nahiko nuke «puntuak». Eskolartekoaz, udaberriroko lehiaz iritzi interesgarria duen bati utziko diot hitza: Zure gogoetaren zain, Maialen Akizu.

Koplak

Arabako Bertsozale Elkartearen batzar orokorra

Arabako Bertsozale Elkarteak urtarrilaren 19an egingo du bere batzar orokorra eta, horrekin batera, egunpasa ederra. Goizeko ekitaldia Arabako Bertsolari Txapelketaren aurkezpen publikoarekin hasiko da, 10:00etan Abornikanoko Enbeitatarren Errota baserrian. Horren ondoren, Izarrako Behekoiturri elkartearen hamaiketako egongo da eta segidan, 12:00etan Arabako Bertsozale Elkartearen batzar orokorra hasiko da. 15:00etan Izarrako Behekoiturri elkartearen bazkaria izango da eta bazkal ostean, Txanpiñoien saioa. Izena eman behar da urtarrilaren 16a baino lehen 945010505 – 675707971 telefonoetan edo araba.sustapena@bertsozale.com e-postan.

Poto-Finixa



Bertso-eskoletako irakasleen formazio saioa

Bertso-eskoletako irakasleen bizipenak hurbiltzeko, konpartitzeko eta formazioan urrats berriak emateko ikastaroa antolatu du Elkarteko transmisio sailak martxoaren 16rako Villabonan. Goizeko saioa izango da, 10:00etatik 13:00etara eta Arantzazu Loidi izango da emalea. Ikastaroa dohainik da eta transmisioa@bertsozale.com helbide elektronikoan informazio gehiago eskatu daiteke.



JASOTA BEZALA
Bertso antologiaren bilduma

Lanku
ESKURATZEKO:

www.lanku.com (etxean jasoko duzu)